



Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeari

Data: 2013/01/31

**Prezio publikoak salbuespenezko arrazoiengatik itzultzea eta ohorezko matrikulagatik murriztea:
Aldezlearen gomendioak**

Aldezleak unibertsitateko sektore desberdinetako kideen eskariak jaso ditu ikasketen gestiorako arautegian zenbait kontu hobetzeko. Eskari biek zerikusia dutenez UPV/EHUren zerbitzu akademikoengatik ordaintzen diren prezio publikoen tratamenduarekin, bi eskariak batera azaldu eta aztertuko ditugu idatzi honetan.

Batetik, irakasle batek bere esperientzian oinarriturik aldezleari azaldu dio gaur egungo arautegiak ez duela aurreikusten ikasleari prezio publikoak itzultzea arrazoi larriengatik, adibidez, buruko gaixotasunagatik, ikasten jarraitu ezin duenean. Bidegabeba iruditzen zaio, eta horregatik eskatzen dio aldezleari gomendioa egin dezan arautegia aldatzeko, matrikula salbuespenezko arrazoiengatik balio gabetzen denean prezio akademikoak itzul daitezzen.

Bestetik, graduatu berria den ikasle batek galdera egin du ohorezko matrikulagatik prezio publikoetan egiten den deskontuaren inguruan. Ikasleak dio arautegi akademikoak ez duela jasotzen titulazioko azken urtean lortutako ohorezko matrikulengatik deskontua izatea, eta eskatzen du graduondoko lehen mailan aplika dadila.

Aldezleak, printzipioz, arrazoizko deritzen eskariei eta tramiterako onartu ditu. Orain banan banan aztertuko ditugu biak.

1. Prezio publikoak salbuespenezko arrazoiengatik itzultzea dela eta

Eskatzaileak dio ikasle batek ikasketak ezinbestean utzi behar dituzela (istripuagatik, gaixotasun larriagatik, arazo mentalengatik...), nahiz eta matrikula balio gabetzeko eskaria egin, epe eta modu egokian, ez zaiola dirua itzultzen. Eskatzaileak uste du hori bidegabeba dela, kasu horietan arrazoi sendoak daudelako matrikulako dirua itzultzeko. Eskatzen du egoera hori kontuan hartzeko, eta ikasketen gestiorako arautegian jasotzeko prezio akademikoengatik ordaindutako dirua itzuli egingo dela salbuespenezko zirkunstantziak gertatzen direnean. Halako kasua litzateke ikasleak ikasten jarraitu ezin duenean gaixotasun fisiko edo mentalagatik edo familia edo lan egoeragatik, baldin eta egoera horiek modu objektiboan egiaztatzen ahal bada, betiere.

Aldezlearengana jo aurretik eskatzaileak ikasleen errektoreordeari egin zion eskaria, eta hark Akademia Antolakuntzako errektoreordeari bideratu zion. Zentzuzko epe bat igarota ez zuenez erantzunik jaso, erakunde honetara jo zuen. Bulego honek ohitura du balorazioak egin aurretik,



organo eskudunari galdetzeko. Akademia Antolakuntzako zuzendariak erantzun zuen prezio publikoei buruzko puntu hori berrazter zitekeela arautegian, eta horretarako lagungarri izango zitzaizela zerbitzu honek eman ziezaikeen informazioa beste unibertsitate batzuetan gai honi ematen zaion trataeraz. Gauzak horrela, aldezleak gaia aztertu du.

Eskatzaileak proposatzen du salbuespenezko kasuetan ikasleak matrikula baliogabetu ahal izatea ondorio ekonomikoekin, eta ez bakarrik akademikoekin, betiere aurretik bere egoera frogaturik eta agintari eskudunak eskaria azterturik.

Aldezlea bat dator eskatzailearen arrazoiekin eta, gomendio zehatz bat egiteko, honako hauek aztertu ditu: Lehendabizi, UPV/EHUko arautegietan gai hau nola dagoen araututa; bigarrenik, prezio publikoek zer dagoen autonomia erkidegoko arauetan; hirugarrenik, Espainiako beste unibertsitate batzuetako arauak zer dioten gai honetaz.

Prezio publikoak nola dauden araututa UPV/EHUko ikasketen gestiorako arautegian

Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2012-2013ko Arautegiak honela dio 35.1 artikuluan:

“nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, ez zaio inolaz ere itzuliko ordaindutako dirua”.

Gero 35.4 artikulua haxe dio:

“Ikasturte bakoitzean ikasleek abenduaren 31 arteko epea izango dute matrikula baliogabetzeko. Data horretatik aurrera ez da baliogabetuko matrikularik, baldin eta unibertsitateak baimena beren-beregi ematen ez badu, ikasleak eskaera egin eta gero”.

Laburbilduz, matrikula abenduaren 31 baino lehen baliogabetu daiteke, eta baita geroago ere, salbuespenezko kasuetan, unibertsitateak baimena ematen badu. Hala ere, ez dira inolaz ere ordaindutako prezio publikoak itzuliko.

Beraz, matrikula baliogabetzeak ondorio akademikoak dauzka, baina ez ekonomikorik.

Autonomia erkidegoko arauak zer dioten prezio publikoak itzultzeaz

Unibertsitateak bere zerbitzu akademikoaren truke ezartzen dituen prezioak prezio publikoak dira, eta unibertsitate arloan eskumenak dituen sailak onartutako arauen menpe daude, halaxe ezartzen baitu Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, 95.1 artikuluan:

“Prezio publikoen gaineko indarreko araudiak arautuko ditu irakaskuntza-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak eta lege ezarritako gainerako ordainkizunak, eta unibertsitateen gaitan eskumenak dituen sailburuak onartu beharko ditu horiek”.



Prezio publikoen gaineko arauak Euskal Autonomia Erkidegoan honako testu hauetan daude jasota:

1. **Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretua**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartu zuena, gerora aldatu zena abenduaren 22ko 5/2011 Legearen bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko zena) eta 2012 urtealdirako Aurrekontuen Legearen bitartez.
2. **Irailaren 28ko 249/2010 Dekretua**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoak kobra ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituenak.
3. **2012ko ekainaren 15eko Agindua**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, zeinaren bidez 2012-2013 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatu diren, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere.

1/2007 Legegintzako Dekretuak honela dio 34.2 artikuluan:

“Hona zein unetan eskatuko den prezio publikoa ordaintzea: hura ordaindu beharra eragiten duten ondasunak ematean edo zerbitzuak ematen hastean”.

Beraz, unibertsitateak matrikula ordaintzea eska dezake zerbitzua ematen hasten denetik. Hortik aurrera zilegi da ordaintzea eskatzea, eta gainera aurretik ordaintzea ere eska liteke, 34.4 artikuluan esaten denez:

“Prezio publikoen zenbatekoa, osoa edo zati bat, aldeztu aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango da”.

Bestalde, autonomia erkidegoko arauetan prezio publikoak itzultzeko aurreikusten den kasu bakarra da unibertsitatea zerbitzua ematera ez heltzea, unibertsitateari berari leporatu beharreko arrazoiengatik. 34.6 kapituluak honela dio:

“Prezioa ordaintzera behartutakoari egoztekoak ez diren arrazoiengatik jarduera egiterik ez dagoenean, edo zerbitzua ematen ez denean, dirua atzera itzuli beharko da”.

Unibertsitateak 34.6 artikulua horretan hartzen du babesa prezio publikoei dagokiena arautzeko bere gestio arautegian. Honelaxe dio 35.1 artikuluan:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateratua onartu zuen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak 34.6 artikuluan dioenaren arabera, nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, ez zaio inolaz ere itzuliko ordaindutako dirua”.



Hala ere, ikusten denez, 1/2007 Legegintzako Dekretuko 34.6 artikuluan ez da esaten prezio publikoak inolaz ere itzuliko direnik; bai zehazten da, ordea, kasu bat zeinetan, legez, unibertsitateak itzuli beharko duen kobratutako dirua; alegia, jarduera egiten ez denean ordaintzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Edozelan ere, ezin dezakegu autonomia erkidegoko legeriara jo unibertsitateari eskatzeko kobratutako diruak itzul diezazkiola matrikula baliogabetzeko eskari bat onartzen duenean, erkidegoko arauak ez baitute aurreikusten dirua itzultzea unibertsitatearekin zerikusirik ez duten salbuespenezko arrazoiengatik ordaintzaileak ezin duenean zerbitzua jaso.

Hortik abiatutik, Espainiako beste unibertsitate publiko batzuen arauak erreparatuko diegu, ikusteko nola konpontzen duten arazo hau.

Espainiako beste unibertsitate batzuetako arautegiek zer dioten prezio publikoak itzultzeaz

Espainiako beste unibertsitate batzuen ikasketen gestiorako arautegiak ikusita, ondorioztatu dugu gehien-gehienek aurreikusten dutela zerbitzu akademikoengatik ordaindutako prezio publikoak itzultzea, ikasleak ezin duenean ikasketekin jarraitu salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.

Adibidez, **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean** ikasketen gestiorako arautegian aurreikusten da prezio publikoak itzultzea baldin eta matrikula baliogabetzea eskatzen bada eta agiri bidez frogatzen bada salbuespenezko arrazoiak daudela horretarako, ustekabekoak eta ikasleen egoeran eragin handia dutenak. **Valentziako Unibertsitatean** aurreikusten da dirua itzultzea ikasleak ezinbestean utzi behar dituztenean ikasketak, adibidez gaixotasunagatik, lanarekin edo arlo profesionalarekin zerikusia duten arrazoiengatik, familia unitatean izandako galera ekonomikoengatik edo horien pareko bete edozein arrazoiengatik. **Coruñaiko Unibertsitatean** dirua itzultzen da matrikula baliogabetzen denean behar bezala oinarritutako arrazoiengatik. **Almeriako Unibertsitatean** dirua itzultzen da Gerentziak onargarri deritzon ezinbesteko arrazoiak dagoenean. **Huelvako Unibertsitatean** dirua itzultzen da matrikula urtarrilaren 31 baino lehen baliogabetzen bada gaixotasun larriagatik, salbuespenezko familia arrazoiengatik, edo ikaslea edo bera mantentzen duen pertsona probintziatik kanpo kontratatua izateagatik edo haren lanpostua probintziatik kanpora aldatzeagatik. **Zaragozako Unibertsitatean**, matrikula baliogabetuz gero ikasleari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik. **Balearrateko Unibertsitatean**, matrikula baliogabetzen bada abenduaren 31ren aurretik lehen seihilekoko irakasgaietarako, edo apirilaren 30a baino lehen, bigarren seihileko irakasgaietarako, baldin eta tartean gaixotasun larria bada, aldaketa garrantzitsuren bat lan edo familia baldintzetan, edo bestelako salbuespenezko arrazoiak sortu badira (azken kasu honetan bakar-bakarrik hala baderitzo errektoreak). Dena dela, kasu guztietan unibertsitatea matrikularen % 25ekin geratzen da. **Jaengo Unibertsitatean** dirua itzultzen da matrikula baliogabetzea eskatzen bada behar bezala egiaztatutako ustekabeko arrazoiengatik, baldin eta errektoreak uste badu dirua itzultzeko moduko arrazoiak direla. **Rovira i Virgili Unibertsitatean** dirua itzultzen da tartean gaixotasun larria bada, eta urriaren 30a baino lehen eskatzen bada baliogabetzea. **Nafarroako Unibertsitate Publikoan** dirua



itzultzea aurreikusten da ikasleak matrikula baliogabetzea eskatzen badu ezinbestean utzi behar badio ikasteari salbuespenezko eta ustekabeko arrazoiengatik, behar bezala justifikatuz gero.

Laburbilduz, unibertsitate gehienetan aurreikusten da matrikula baliogabetu eta ordaindutako dirua itzultzeko aukera ikasleak matrikula egin ondoren eta unibertsitatea zerbitzu akademikoa ematen hasi eta gero, baldin eta ikasleari ikasketekin jarraitzea eragozten dioten salbuespenezko arrazoiak sortzen badira.

Prezio publikoak itzultzea diogunean esan nahi dugu zerbitzu akademikoen truke ordaindutako diruaz ari gara; izan ere, leku askotan unibertsitateek zerbitzu administratiboei dagokien parteak gordetzen dute.

Matrikula baliogabetu eta dirua itzultzeko onartzen diren salbuespenezko arrazoiak nahiko antzekoak dira unibertsitate guztietan. Ikasleari leporatu ezin zaizkion arrazoiak dira, ikasturtea hasiz gero sortutakoak, ezinbestekoak eta ikasleari ikasten jarraitzea eragozten diotenak. Gainera, bakarrik onartzen dira behar bezala egiaztatzen direnean. Onartzen diren arrazoietakoz batzuk dira, esaterako, gaixotasun fisiko edo mentala edo istripu larria, lan edo familia baldintzen aldaketa larria, edo horien pareko salbuespenezko beste arrazoi batzuk.

Aldezlea bat dator eskatzailearekin dioenean ikasketen gestiorako arautegiko 35.1 artikulua ("ez zaio inolaz ere itzuliko ordaindutako dirua") hitzez hitz aplikatuz gero, egoera partikular zailak sor daitezkeela, eta horregatik aldezleak **GOMENDATZEN DU** arautegia aldatzea, zerbitzu akademikoen truke ordaindutako prezio publikoak itzul daitezzen matrikula baliogabetzeko eskaria onartzen denean salbuespenezko arrazoiengatik, behar bezala egiaztatuz gero, betiere.

2. Prezioen murrizpena graduondoko lehen mailan ohorezko matrikulagatik

Eskari hau egin duen ikaslea UPV/EHUko master ofizial bateko lehen mailan dago. Ikasleak dio zenbait ohorezko matrikula atera zituela masterrerako bidea eman dion titulazioko azken mailan, baina ez diotela matrikularen prezioa murriztu horregatik, unibertsitateko arauak jarraiki hori bakarrik aplikatzen delako titulazio beraren barruan egiten diren hurrengo matrikuletan. Uste du logikoa litzatekeela titulazioko azken mailan lortutako matrikulek eskubidea ematea goragoko graduoko lehen mailako matrikulan murrizpena izateko, eta aldezleari eskatzen dio gomendioa eman dezala ikasketen gestiorako arautegia aldatzeko, hala jaso dadin.

Aldezleari arrazoizkoa iruditzen zaio eskaria eta gaia aztertu du. Horren inguruko arauak erreparatu die eta begiratu du nolako tratamendua ematen zaion gai honi beste unibertsitate batzuetan.

UPV/EHUko ikasketen gestiorako arautegiak haxe dio 36.b artikuluan:

“ Ohorezko matrikulak eskubidea ematen du matrikulan deskontua izateko, baina hori aplikatzen da ikasketa berberetan egiten den hurrengo matrikulan, edo lehen zikloa egin ondoren bigarren zikloko ikasketak hastean”.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 15eko Aginduaren



bidez, 2012-2013 ikasturtean UPV/EHUko goi mailako hezkuntzako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezioak finkatu ziren, bai eta horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak ezarri ere. Honelaxe dio 7. artikuluan:

“Kreditu-sistemaren bidez egituratutako irakaskuntzetan ohorezko matrikulagatiko murrizketak ikasketa bereko hurrengo matrikulan aplikatuko dira edo egindako lehen zikloak aukera ematen duen 2. zikloko ikasketetan. Murrizketa horiek EHUko ikasleei soilik aplikatuko zaizkie, eta ez beste unibertsitateetatik datozenei, izan publikoa zein pribatua”.

Beraz, ohorezko matrikulengatik aplikatzen diren deskontuez UPV/EHUK dauzkan arauak bat datoz legearekin, eta bakarrik-bakarrik onartzen dute murrizpen hori ikasketa berberetan egiten den hurrengo matrikulan egitea.

Hala ere, aldeleari arrazoizkoa iruditzen zaio titulazio bateko azken mailan lortutako ohorezko matrikulek goragoko graduako lehen mailako matrikulan deskontua ekartzea, hurrengo ikasturtean egiten baldin bada, betiere. Ildo horretan, interesatzen zaio jakitea zein trataera ematen zaion arazo honi Espainiako beste unibertsitate publiko batzuetan. Aztertutako arautegien artetik, honako hauek aipa daitezke jarrera honen alde:

Almeriako Unibertsitatean, 2012-2013 ikasturteko matrikula ofizialari buruzko 2012ko ekainaren 1eko Erabakiak honela dio 37.4 artikuluan: Masterreko ikasketetan aplikatu ahal izango dira masterreko sarbidea eman duen titulazioan lortutako ohorezko matrikulen hobariak, titulazioa Espainiako unibertsitate publiko batean egina bada. Edozelan ere, behin bakarrik aplikatu ahal izango dira hobariok, eta master ofizialeko lehen urtean besterik ez. [Gaztelaniaz jatorrizkoan].

Lleidako Unibertsitatean honela dio 2012/2013 ikasturteko graduako ikasketa ofizialen arautegiak 15. orrialdean: Ohorezko matrikula duten kredituak graduako titulazioko azkenak badira, masterrean aplikatuko da deskontua, honetara aplikatu ere: irakasgaia urtekoa bada, masterreko bi kreditu deskontatuko dira eta irakasgaia lauhilekoko bada, kreditu bat deskontatuko da. [Gaztelaniaz jatorrizkoan].

Murtziako Unibertsitatean graduako eta lehen eta bigarren zikloko ikasketen 2012/2013rako arautegiak honela dio ohorezko matrikulen hobariak direla eta : Hobaria aplikatuko da ikaslea matrikulatzen den hurrengo ikasturtean, baina bakarrik titulazio bereko kredituetan, bigarren zikloko ikasketetan edo titulazio horretatik abiatuta egiten diren masterretan. [Gaztelaniaz jatorrizkoan].

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan Gobernu Kontseiluak 2012ko apirilaren 26an titulazioetan sartu eta matrikulatzeari buruz onartutako arautegiak honela dio 69.3 artikuluan: Karrera amaitu aurreko azken mailan edo seihilekoan edo Karrera Amaierako Proiektuan edo Gradu Amaierako Lanean lortutako ohorezko matrikulak hauei aplikatu ahal izango zaizkie: (...) I. eranskineko zerrendako unibertsitate masterretako lehen mailako irakasgaiei. [Gaztelaniaz jatorrizkoan].



Sevillako Unibertsitatean graduko eta unibertsitate masterretako matrikula arautzen duen errektorearen erabakiak honela dio 26.4.b artikuluan: Matrikulatuta dauden mailaren aurre-aurrekoan ohorezko matrikula lortu duten ikasleek hobaria izango dute, irizpide hauen arabera: (...)
2. Masterrera sartzean, baldin eta ohorezko matrikula lortu badute master horretarako sarbidea ematen duen titulazioan. [Gaztelaniaz jatorrizkoan].

Aldezleak uste du unibertsitate horietan ohorezko matrikulagatik lortzen den deskontua egoki araututa dagoela, eta horregatik **GOMENDATZEN DU** ikasketen gestiorako arautegian jasotzea titulazioko azken mailan lortutako ohorezko matrikulei dagokien deskontua UPV/EHUn egiten den graduondoko lehen mailako matrikulan aplikatuko dela.



Sin.: **Itziar Etxebarria**
UPV/EHUko Aldezlea